

Erreferentziako Marko Estandarra finkatu du HPSk

Orain arteko euskara-planak lan munduan berritu, sendotu eta hedatzeko balio du



9 Oeko hamarkadan, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak euskara lan-munduan sustatzeko programa abiarazi zuen, euskara-planen bidez. Gure hizkuntzaren erabilera eta presentzia areagotzea zen asmoa, euskara enpresaren kulturaren barneko osagai izan zedin. Lehenengo, programa pilotuak jarri ziren martxan zenbait enpresatan, geroago haien eredia beste hainbat enpresa eta merkataritzagunetara zabaltzeko asmotan.

Joan deneko hamabost urte honetan nabarmen garatu dira orduko ereduak eta, gaur egun, zehinahi enpresak ditu bere neurriko plana lantzeko, gestiona-

tzeko eta ebaluatzeko baliabide eta lanabesak. Ondorioz, enpresa bere helburuak, eritmoak eta errekursoak zehazteko moduan da, dela bere kabuz edota hizkuntza-zerbitzuak eskaintzen dituen enpresaren baten laguntzaz.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren iritziz, orain artean egindako ahalegin handia eta finkatutako eredia beste enpresa askotara, ahalik eta modurik eraginkorrean, zabaltzeko garaia heldu da. Horretarako, ezinbestekoa da eragile sozio-ekonomikoen inplikazio eta ekarpena biltzea. Hori dela eta, Sailburuordetzak zenbait bilera egin ditu 2006 honetan sindikatu nagusiekin, Lan Harremanetarako Kontseiluarekin eta enpresari-elkarteekin. Bileretan, lan-egitasmoa aurkeztu eta harreman eta elkar laguntza iraunkorra finkatzen saiatu dira alde guztiak.



Horrekin batera, euskara-planak berak homogeneizatu eta estandarizatu ditu Sailburuordetza honek, ekintzabideak bateratzeko. Honi dagokionez, proiektu osoari koherentzia ematen dion elementua sortu du HPSk: Erreferentziako Marko Estandarra (EME), hain zuzen ere. EMEk era mailakatu xehatzen ditu enpresak euskararen erabilera areagotzeko garaian dituen balizko lan-eremu edo lau analisi mailak.

Honenbestez, enpresa batek bere behar eta ahalaren arabera euskara-plana egin lezake, EME oinarritzat hartuta.

EMEk, bestalde, orain arte erabili diren planak eguneratzeko eta birpentsatzeko balio du. Are gehiago, enpresetan ezaguna den Deming zikloa baliatzeko proposamena ere egin du (hau da, plana egin; plana aurrera eraman; planaren emaitzak neurtu; plana doitu).

Urrats hau eginik ere, HPSk beste hainbat ekimen ere abiarazi ditu, EME bera osatzeko: adibidez, dokumentazio eta adibide lagungarriak jasoko dituen erreferentziako web gunea diseinatzea, plangintza gauzatzeko aplikazioa burutzea, nork bere enpresaren hizkuntza-egoeraren diagnostika egiteko berriratzeko tresna sortzea, euskara-planak enpresa gehiagotara zabaltzeko ekimena bideratzea, etab.

Legegintzaldi honetan, beraz, HPSren helburua da enpresetan euskararen erabilera areagotzeko orain arte egin dena berritu, sendotu eta hedatzea.

LEKTORE PROGRAMA

Euskara eta euskal kulturari buruzko ikastaroak eskaintzen dituzte atzerriko hamaika unibertsitatek

J oan deneko hogei-hogeita bost urteotan euskarak aurrerakada itzela egin du, ezagutzaren aldetik batez ere, baina baita erabilerari dagokionean ere. Indarberitze horrekin batera, mugaz gaindi ere areagotu egin da euskara eta euskal kulturarekiko interesa. Azken hori dela eta, Kultura Sailak interes hori egituratzea erabaki du eta euskara eta euskal kulturari balio akademikoa ematea atzerriko unibertsitateetako ikasketen barnean. Hori gogoan, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak Lektore programaren baitan zenbait unibertsitateekin sinatu du hitzarmena.

Lektore programaren helburua da euskal hizkuntzaren eta kulturaren ezagutza bultzatzea hizkuntza-jabaritik kanpo dauden unibertsitateetan nahiz goi-mailako beste irakaskuntza-zentro batzuetan. Programa horren bidez, interesa adierazten duten unibertsitateei euren ikasketa-planetan euskara eta euskal kulturako ikasketak martxan jartzeko edo sendotzeko diru-laguntza eskaintzen zaie; era berean, aholkularitza eta material zein baliabide didaktikoak ere eskueran jartzen zaizkie, irakaskuntza gara dezaten.

Interesa duten unibertsitateek idatzizko eskaera egin behar diote Kultura Sailari, euskara eta euskal kulturaren irakaskuntzak unibertsitate horretan izango dituen ezaugarriei buruzko deskribapena eginez. Bertan, besteak beste, hona-


ko hauek zehaztu beharra dago: ikasketa-planetan euskararentzat aurreikusten den estatus akademikoa, programa, euskarako irakurletzako tutoretzaren arduradun akademikoaren curriculum laburra, e.a. Tokian tokiko unibertsitateak eta Kultura Sailak hitzarmena sinatuko dute erakunde bakoitzak egingo duen ekarpen ekonomikoa eta gainerako baldintzak adostu ostean.

Hitzarmenaren arabera, euskara eta euskal kulturari buruzko ikasketak unibertsitateak eskainitako titulazioen ikasketa-planetan txertatu beharko dira eta kredituak sortu beharko dituzte.

Gainera, unibertsitate bakoitzak arduradun akademiko bat izendatuko du irakurletza koordinatuko duena eta Kultura Sailarekiko lankidetzak harremanak bideratuko dituena. Hark, euskara eta euskal literaturaren irakasgaiari buruzko datuak eman ez ezik, erreferentziako aldi akademikoan egindako jardueren memoria aurkeztuko beharko du, besteak beste.

Lektore programa egun.

Lektore programa osatzen duten atzerriko unibertsitateak hamahiru dira oraingoz. Txilen, Uruguayn, Mexikon, Alemanian, Finlandian, Polonian, Italian eta Espainian kokaturik daude.



Honako hauek dira, gaur gaurkoz eta herrialdez herrialde, Lektore programa sinatu duten unibertsitateak:

Txile. Universidad Pontificia Católica de Chile (Santiago), Pontificia Universidad Católica de Valparaíso, Universidad de Chile (Santiago) eta Universidad de Valparaíso. Lau unibertsitateetan "Euskara eta euskal kultura" eta "Euskara, los más antiguos de Europa" izeneko programak garatu dituzte Kultura Sailak eta unibertsitateek. Otsailaz geroztik Idoia Saenz Aja irakaslea da lau unibertsitateotako lektorea. Ehun ikaslek baino gehiagok eman dute izena.

Uruguay. Montevideoko Universidad de la República-n indarrean dago "Euskara eta euskal kultura" programa. Montevideo bertako bi irakasle dira arduradun.

Mexiko. Hiriburuko UNAM-en (Universidad Autónoma de Mexico) Guruzne Etxebarria da irakurlea. Aurreikusi baino ikasle gehiago bildu dira eta bi taldetan banatu behar izan dituzte.

Finlandia. Hirurogei ikaslek eman dute izena Helsinkiko Unibertsitateak eskaintzen duen programan. Bertako Hanna Lantto da irakaslea, garai batean Erasmus programaren bidez Euskal Herrira etorri eta euskara ikasitako anderea. Gaur egun, gure hizkuntza irakasten du bere herrian.

Polonia. "Euskara eta euskal kultura" ikastaroen eskaintza egina du Varsoviako Unibertsitateak. Aitor Arruza da irakasle.

Italia. Erromako Upter Unibertsitatearen eskaintza berezia da. Asoziazio-ene Culturale Euskara-rekin elkarlanean hainbat ikastaro eskaintzen dira:

"Euskara 1, 2, 3", "Mintzapraktika", "Udako euskara ikastaroa" eta euskal kulturari buruzko bi ikastaro: "Introduzione alla Lingua e alla Cultura Basca" eta "Seminari di Approfondimento sulla Cultura Basca".


Spainia. Valentziako Unibertsitatean ikasleen eskariak bultzatu zituen unibertsitateko arduradunak Lektore programa jartzera. Egun Ainhoa Unamuno dugu euskara eta euskal literaturaren irakasle Valentzian.

AEBak. Idahoko Boise State University-n minor-a edo graduondokoa ikastekoa eskaintzen du bertan Kultura Sailak, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiarekin eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin batera.

Alemania. Egitasmo bi dira martxan herrialde honetan. Batetik, Lektore programa Berlingo Freie Unibertsitatean eta Frankfurt-eko Johann Wolfgang Goethe Unibertsitateko Euskal Ikaskuntzen Zentroan. Azken hau Idahokoaren antzera Jaurlaritzaren Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiarekin eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin batera.

Txekiar Errepublika. Laster batean sinatuko da hitzarmena Brnoko Masaryk Unibertsitatearekin.

Oinarrizko moduluek interesa piztu dute, beraz, atzerriko unibertsitateetan. Askori, erakargarri zaio Euskal Herriko kultura eta, ondorioz, modulu hori bermatzea izango da lehenengo helburua. Gero, ikasgaiari jarraipen emango dioten bigarren edo hirugarren mailako moduluak jartzea aztertuko da.



EGA-TIK GORAKO MAILA ARAUTU DU KULTURA SAILAK

Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua burutzera dator

Helduen euskalduntzean ikas-prozesua gero eta eraginkorragoa eta kalitate hobea izateko lanean ari dira HABE eta euskaltegien sareak.

Bide horretan, 2000. urtean onartu zen oinarrizko kurrikulua lau mailatan banatu zuen euskalduntze-prozesua. Bertan, maila bakoitzerako helburu orokorrak, metodologia eta ebaluazioa zehaztu ziren. Orduan, ordea, lehen hiru mailen edukiak eta ebaluazio-irizpideak garatu ziren soilik. Ildo horretan, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua burutzera datorren 4. maila, EGAtik gorakoa, arautu du Kultura Sailak.

Maila honek euskara tekniko eta zientifikoaren eskakizunak beteko ditu, alegia, gai egingo du ikaslea teknikaren eta zientziaren testuinguruetan euskaraz aritzeko. Era berean, maila jasoko testu idatziak normal ulertzeko gaituko du eta hizkuntz maila formal eta informalak iaioki menderatuko ditu. Idatzizkoan, berriz, inolako eragozpenik gabe helduko dio edozein idazki-motari.

Heldu euskaldunen mota askotako eskariei erantzun nahi die laugarren maila honek: EGA maila (3. maila) hobetu nahi dutenei (EGA agiria edo baliokidea izan behar dute 4. mailako ikastarora egin nahi duten ikasleek); beren lanagatik-edo, euskaraz gaitasun handiagoa behar dutenei –kazetari, irakasle eta, oro har, langile espezialduei...–; administrazio 4. hizkuntza eskakizuna lortu nahi duten herritarrei...

Aurten, 2005–2006 ikasturtean, bost euskaltegi ari dira 4. maila ematen, saio moduan: Lea Artibaiko AEK (Ondarroan), Azpeitiko Udala Euskaltegia, Bilbo Zaharra, Ilazki (Donostia) eta Maizpide (Lazkao). Guztira, 45 ikasle dituzte, nahiko ezberdinak lanbidez: irakasle, kazetari, administratibo, abokatu, arkitekto, erizain, gizarte-laguntzaile...

Ekanean egingo dituzte azterketak lehen ikasle horiek. Eta heldu den ikasturtean, beste bost euskaltegi gehituko zaizkie aurtengo bostei, horiek ere modu esperimentalean. Esperientzia horietan oinarrituta zabalduko du HABEk eskaintza hurrengo ikasturteetan.

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berekalduntzerako Erakundea

XUXEN QUARKXPRESS MAC OSX

Gauza jakina da, gaur egun, ordenagailuz lagunduta idazten dugunean, zuzen idatzi nahi badugu behinik behin, hau da ortografia-akatsik egin gabe, erabiltzen dugun hizkuntzaren arabera, zuzentzailea aktibatuta izan behar dugula.

Bada, euskaraz idazteko, *Xuxen* zuzentzaile ortografikoa dugu ezinbesteko lanabesa. *Xuxen* azken urteotan garatuz joan izan da eta, hori dela eta, hainbat bertsio dugu eskuragarri gure ordenagailuko sistema eragilearen (Windows edo Linux) eta bulegotika paketearen arabera instalatzeko.

Garatutako azken bertsioa *Xuxen QuarkXpress Mac OSX* dugu. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren enkarguz Eleka Ingeniaritza Linguistikoa enpresak prestatu berri du, bereziki, inprimategietan erabiltzen den QuarkXpress softwareerako bertsioa.

Hortaz, *Xuxen* zuzentzaile ortografikoaren bertsio guztiak http://www.euskara.euskadi.net/euskara_soft helbidetik doan deskarga daitezke. Helbide horretan bertan instalazioari buruzko xehetasunak aurkituko dituzu. Hona aipatutako web gunean eskuragarri dagoena:

Xuxen zuzentzaile ortografikoa

Xuxen III EDBLko (Euskararen Datu Base Lexikala) datuekin
bertsioaren zehaztasunak(.pdf, 50Kb)

- Microsoft Office 2000/XP (2,5 Mb) Nola instalatu
- MAC Word X (3 Mb) Nola instalatu (pdf, 474Kb)
- **MAC QuarkXpress (3 Mb) Nola instalatu (pdf, 649Kb)**
- OpenOffice.org 1.1 Windows (2 Mb) Nola instalatu
- OpenOffice.org 1.1 Linux (7,5 Mb) Nola instalatu

Xuxen II

- Microsoft Office 97 (2 Mb) Nola instalatu (zip, 270Kb)
- MacWord 2001 (2,5 Mb) Nola instalatu (zip, 135Kb)
- Mac Word 98 (1,6Mb) Nola instalatu
- **OpenOffice.org 1.0 (Windows) (2Mb) Nola instalatu**
- **OpenOffice.org 1.0 (Linux) (4Mb) Nola instalatu**

Bestalde, zuzentzaileaz gain, bestelako software produktua ere lortu daitezke goiko helbidean: hiztegien plugin-ak, software libreko produktua, testuak euskaraz digitalizatzeko OCRa eta kudeaketako softwarea.

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jakinarazten dizu zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula, ondoren, agerkari hau zabaltzeko eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zenbait argitalpenen berri emateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuak ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara jo dezakezu: Kultura Saileko Euskara Sustatzeko Zuzendaritza / Donostia kalea, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza / Donostia-San Sebastián, 1 / 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba) / Tel.: 945 01 81 16 • e-posta: berripapera@ej-gv.es